

JOSE JUAN BAUTISTA MERINO URRUTIA (1886-1982)

Laurogeitabost urtedun hil zen Maiatzaren 6an, gaueko hamaika terdian, Algortan, San Inazio kaleko bere etxean, JOSE JUAN BAUTISTA MERINO URRUTIA MORQUECHO RUBIO, Euskaltzain ohorezkoa. Aste beteko gaixoal-ditxo baten ondoren, gorputzaren nekez baina buru argi zelarik joan zaigu gure Euskaltzainik zaharrena, Euskaltzainen aitona hain zuzen.

1966 an ezagutu nuen Merino Urrutia Ojacastron, igande goize batetan. Ezcarayen nengoen nire familiarekin asteburua pasatzen eta euskaldunek han utzitako haztarnei buruz ikerketatxoa asmatzen neinbilen eta Merino Urrutiaren etxera jo nuen. Hainbat berri lortu ondoren, tartean Arregiren toponimiako mapa, nire oharrak taituzten hasi nintzen arratsaldean bertan, gero *Txtistulari* aldizkarian argitara eman nituen lanak osatzeko asmotan. Gero harreman ugariak izan ditut Merino Urrutia jaunarekin, esate baterako, haize-erroten ikerketa zela eta laguntza emanez, Gernikan "Aixerrota" mendia baita. Orain duela urtebete, telefonoz dei egin zidan eta Algortako etxean elkar ikusi genuen. Oso haserretuta zegoen Luis Maria Lojendio Abak YA egunkarian argitara emandako artikulu baten mamiagatik. Garcia Berlangaren *5.000 años de euskera* liburuari zuzendutako irazkin batetan, beste gauza barregarri batzuren artean, *Peru Abarca* Astarloarena zela, dio Lojendiok eta halako kirtenkeriekin sutan jartzen zen gure aitona. Baina berandu izan arren Iber-en "Ami vasco" irakurtzen ari zen orduan Merino Urrutia eta nor zegoen ezizen horren atzean jakin nahi zuen. 1906.eko lehen argitalpena zerabilen esku artean eta Ramon Goikoetxea Orokiatzen berri eman nion. Aurten ere izan ditut harremanak berak ahantzita zeukan lan baten berri eta kopia eman nion eta. 1971an, Bilboko *Correo Español* egunkarian argitara emandako "El Vasce en la Rioja y Burgos" izeneko artikulua ez zeukan beraren artxiboan eta igorri nionean, Martxoaren 9.eko gutun bat zuzendu zidan eskerrak emanez. Azkue Bibliotekako artxiboan gordetzen da gutun hau, laurogeitabost urtedun Euskaltzainak idatzia.

Ojacastron jaio zen, Jose Juan Bautista Merino Urrutia 1886.eko Irailaren 25ean, Agustín eta Josefa gurasoak zituelarik. Hiru hilebeterekin, Gabonetarako, Bilboko Zazpi kaleetara ekarri zuten. Hemen jaio ziren gero beste anai bi. Santiago Apostoluaren Ikastetxean egin zituen Merkatal Maisu izateko estudioak. Gaztaroan Ojacastroko Alkate izan zen urte biren zehar. 1922an, Uztailaren 6an "Ansuenako" Emilia Sánchez Mugika-rekin ezkondu zen Algortako San Nikolas Parrokian eta oraindik bizirik diren sei seme-alaba munduratu zituen: Emilia, José Ramón, María Jesús, María Teresa, Agustín eta Begoña. Mutilen artetik gazteenak jarraitzen du

aitaren etnologiazko zaletasunarekin. Errepublika garaian Algortako zinegotzia izan zen, José Antonio Agirre Alkate izan zen denboran; eta gero, gerra ostean, 1946 an, bertako Alkate izendatu zuten.

Ordurako, banatutako orrietan ikusi ahal duzueenez, euskarari buruzko ikerketetan hasia zen Merino Urrutia. 1931an eman zuen argitara, Madriden, beraren lehen lana, Ojacastron euskarari buruz egindako ikerketa. Gero, iker lanetatik aparte, Euskaltzaindiari mesede handi bat egin zion bizirik jarraitzeko, 1941.eko egun larrietan, baimena eta bultzada eman zionean. 1962an, Euskalerriko Lagunen Elkarteak *El vascuence en la Rioja y Burgos* argitaratu zuen ordurarteko lanak 17. Monografian bilduz. Eta lan eta mesedeengatik, Euskaltzaindiak 1964an Euskaltzain Urgazle hautatu zuen. Eta hamar urte beranduago, 1974an, Ohorezko mailan jartzea erabaki zuen, Maiatzaren 24.eko bileran. Ekainaren 15ean, Kukullako Done Miliagaren Monastegian bildu zen Euskaltzaindia eta izendapeneko Agiria eman zion Merino Urrutiari Aita Villasante Euskaltzainburuak. "Historia de la presencia del vascuence en la Rioja" hitzaldia irakurri zuen orduan Euskaltzain Ohorezko berriak, Berceo aldizkariak 1974an, 87. zenbakian, argitaratu zuena eta gero *Euskera* aldizkariak, 1975ean Euskaltzainen lanen artean eman ziguna. Urte askotan, Bizkaiko Sailaren Idazkaria izan ondoren, 1965.eko Ekainaren 23an Azkoitiko Insausti Jauregian, Euskalerriko Lagunen Elkarteak hurrengo bi urteetarako Buru hautatu zuen.

1962an, Euskalerriko Lagunen Elkarteak egindako argitalpena agortuta zegoenez, *El vascuence en la Rioja y Burgos* estudioa hirugarrenez argitaratzea erabaki zuen Euskaltzaindiak eta Instituto de Estudios Riojanos-ekin batera; eta bigarren argitalpena, Merino Urrutiaren ondorengo ikerketekin aberastua, berriz atera zuen 1978.ean. Oraindik salgai dagoen liburua dugu hau.

Euskarari buruzko lanetatik aparte, etnologiari, historiari eta arteari dagozkien lanak ugari argitaratu ditu Merino Urrutiak. Denen artean bi aipatuko nituzke:



Jose Juan Bautista Merino Urrutia

“Apuntes para la historia de Guecho” eta “El folklore en el Valle de Ojacastró” estudio luze eta dokumentatuak direnez gero. Jon Bilbaoren Bibliografiara jo beharko du xehetasun gehiago nahi duenak.

Hestutasuneko egun larrietan zegoen Euskaltzaindiari lagundu egin zion gizona-ri egin zenioten ohorea; eta orain, joan zaigunean, eman behar diogu langileari dago-
kion lorea. Goian bego.

EUSKARARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA

1. 1931. *El vascuence en el Valle de Ojacastró (Rioja Alta)*. Sociedad Geográfica Nacional. Madrid.
2. 1932. *Más sobre el vascuence en el Valle de Ojacastró*. Intendencia Militar. Madrid.
3. 1935. *El vascuence en Burgos*. Sociedad Geográfica Nacional. Madrid.
4. 1935. *El vascuence hablado en Rioja y Burgos*. RIEV.
5. 1936. *El vascuence en el Valle de Ojacastró*. Huérfanos de Intendencia. Madrid.
6. 1945. *Problemas que plantea la toponimia vasca en Rioja y Burgos*. BRS-VAP.
7. 1949. *El vascuence en la Rioja y Burgos. Problemas que plantea su toponimia*. Rev. Dialectología y Tradiciones Populares.
8. 1949. *Los sufijos -ena y -eta en las casas viejas de Algorta*. Homenaje a Julio Urquijo, I.
9. 1951. *El vascuence en la Rioja y Burgos*. Berceo.
10. 1954. *La Academia de la Lengua Vasca en Bilbao*. BRSVAP.
11. 1954. *Vocabulario de palabras recogidas en el Valle de Ojacastró*. Rev. Dialectología y Tradiciones Populares.
12. 1958. *El vascuence en la Rioja y Burgos*. Berceo.
13. 1959. *Toponimia de Ezcaray*. Euskera.
14. 1960. *El vascuence en la Rioja y Burgos*. In “Geografía Histórica de la Lengua Vasca”. Auñamendi, n.º 14.
15. 1960. *El vascuence en la Rioja y Burgos*. In “Geografía histórica de la Lengua Vasca”. Auñamendi, n.º 14.
16. 1962. *El Vascuence en la Rioja y Burgos*. Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. Monografía n.º 17.
17. 1964. *Los topónimos vasco-riojanos*. BRSVAP.
18. 1971. *El vascuence en la Rioja y Burgos*. “El Correo Español - El Pueblo Vasco”. Suplemento “El vascuence hoy”, 12-9-71.
19. 1972. *Notas a “Contribución al estudio de la toponimia riojana”*. Berceo.

20. 1973. *Vocabulario de la Cuenca del río Oja*. Berceo.
21. 1974. *Historia de la presencia del vascuence en la Rioja*. Berceo.
22. 1975. *Historia de la presencia del vascuence en la Rioja*. Euskera.
23. 1975. *El vascuence en la Rioja y Burgos*. Conferencia. Ateneo de Madrid.
24. 1976. *Toponimia menor de la Rioja*. BRSVAP.
25. 1976. *Artífices vascos en la Rioja*. Junta de Cultura Vasca. Diputación de Vizcaya. Bilbao.
26. 1977. *El Alcalde de Ojacastro, gran defensor del vascuence en el siglo XVIII*. BRSVAP.
27. 1977. *De arqueología riojana*. Berceo.
28. 1978. *La lengua vasca en la Rioja y Burgos*. Euskaltzaindia / Instituto de Estudios Riojanos. Logroño.
29. 1978. *Emigración vasca a la Rioja desde finales del siglo XV hasta mediados del siglo XIX*. BRSVAP.

José Antonio Arana Martija